

# EMAS INGURUMEN- ADIERAZPENA

2024



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, IHOBE SA

## AURKIBIDEA

1	AGURRA .....	4
2	IHOBEREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK .....	6
3	ERAKUNDEAREN AURKEZPENAK .....	7
3.1	XEDEA .....	7
3.2	ERRONKAK .....	7
3.3	2024KO JARDUERA BEGIRATU BATEAN .....	7
3.4	PLAN ESTRATEGIKOA 2024-2028 .....	10
3.5	EGITURA, FUNTZIOAK ETA ARDURAK .....	11
3.5.1	Administrazio-egitura .....	11
3.5.2	Zuzendaritza-egitura .....	11
3.6	INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA (IKS) .....	12
3.7	INGURUMEN-KONPROMISOA .....	14
4	INGURUMEN-ALDERDIAK .....	15
4.1	ZUZENEKO ALDERDIEN EBALUAZIOA .....	16
4.1.1	Alderdi esanguratsuen ebaluazioa baldintza normaletan eta anormaletan .....	17
4.1.2	Alderdi esanguratsuen ebaluazioa larrialdi-baldintzetan .....	19
5	INGURUMEN-ALDERDIAK HOBETZEA: 2024KO HELBURUAK .....	20
5.1	AA1 HELBURUA: Paperaren erakunde barneko kontsumoa % 5 murriztea .....	22
5.2	AA2 HELBURUA: IBILGAILU PRIBATUEN ERREGAI-KONTSUMOA % 5 GUTXITZEA .....	22
5.3	AA3 HELBURUA: BESTE ERAKUNDE BATZUEN INGURUMEN-JARRERA HOBETZEN LAGUNTZEA, BABES-TRESNAK EGINEZ .....	23
5.4	OPO1 HELBURUA: INGURUKO BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN LANKIDETZA-PROIEKTUAK HEDATZEA INGURUMEN-JASANGARRITASUNA ETA KLIMA-ALDAKETA LANKIDETZAKO ETA ELKARTASUNEN POLITIKAREKIN INTEGRATZEKO .....	23
5.5	OPO2 HELBURUA: IHOBEREN ETA EMAKUNDEREN ARTEAN EGINDAKO LANKIDETZA-PROIEKTU PILOTUA HEDATZEA, TOKI-MAILAN GENERO-IKUSPEGIA ETA KLIMA-ALDAKETA TXERTATZEKO .....	24
6	ERAKUNDEAREN INGURUMEN-JOKAERA .....	25
6.1	KUDEAKETA-SISTEMAREN ADIERAZLEAK .....	25
6.1.1	ENERGIA .....	26
6.1.2	MATERIALAK .....	28
6.1.3	HONDAKINAK .....	30
6.1.4	ISURIAK .....	33
6.1.5	URA .....	37
6.1.6	LURZORUAREN ERABILERA BIODIBERTSITATEARI DAGOKIONEZ .....	38
6.2	SEKTORE-ADIERAZLEAK ETA INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUERA ONENAK (SEKTOREKO ERREFERENTZIA-AGIRIA) .....	39
6.2.1	INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUERA ONENAK ENERGIA JASANGARRIARI ETA KLIMA-ALDAKETARI DAGOKIENEZ .....	42
6.2.2	INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUERA ONENAK INGURUMEN-HEZKUNTZARI ETA INFORMAZIOAREN HEDAPENARI DAGOKIENEZ .....	42
7	2025ERAKO HELBURUEN PROGRAMA .....	43

8	INGURUMEN-ARLOKO LEGE-BETEKIZUNAK .....	46
8.1	<i>IHOBEREN BESTELAKO JOKABIDE-FAKTORE BATZUK</i> .....	51
8.1.1	HONDAKINAK PREBENITZEKO EUROPAKO ASTEA.....	51
8.1.2	INGURUMEN-ALDAGAIA INTEGRATZEA EUSKO JAURLARITZAREN LANKIDETZA-POLITIKETAN ELANKIDETZAREKIN EGINDAKO ALIANTZAREN BITARTEZ .....	51
9	HURRENGO INGURUMEN-ADIERAZPENA.....	52

ARGITALPENA: 2025eko abendua

© IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

ARGITARATZAILEA: IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa / Sociedad Pública de Gestión Ambiental  
Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila - Eusko Jaurlaritza

Departamento de Industria, Transición energética y Sostenibilidad - Gobierno Vasco

HARREMANETARAKO:

Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua. 48011 Bilbo

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) | [www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus) | [www.IHOBE.eus](http://www.IHOBE.eus) |

Helbide elektronikoa: [info@IHOBE.eus](mailto:info@IHOBE.eus) | Tel.: 94 423 07 43

## 1 AGURRA



### **Euskadi jasangarri eta lehiakor baterako trantsizioa gidatzea**

Euskadik erronka konplexu eta erabakigarriak ditu etorkizun jasangarrirako bidean. Badakigu klima- eta energia-trantsizioa garapen industrialetik bereizi ezina dela, eta, horregatik, helburu sendo batekin lan egiten dugu: industria gehiago, industria hobea eta isuri gutxiago.

Industria izan da, da eta izango da gure lurraldearen motorra. Kalitatezko enpleguaren eta lehiakortasunaren iturri da baina, era berean, Europaren berrindustrializazioa modu jasangarrian gidatzeko gure apustuaren muina ere bada. Euskadi klima-aldaketaren aurkako borrokan abangoardia izatea nahi dugu. Helburu hori lortzeko, neurri argiekin egiten dugu aurrera, hala nola Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Bulegoa edo Klimaren aldeko Herritarren Batzarra sortzea, isurien murrizketan aurrera egiteko, industrian efizientzia energetikoa sustatzeko eta energia berriztagarrien ezarpena indartzeko, aldi berean herritarren parte hartzea bultzatuz.

Gizarte moderno bat, jasangarria izango bada, jasangarritasun-printzipioekin bat datorren industria batekin bakarrik izan daiteke. Horregatik, ingurumen- eta energia-irizpideak txertatzen ari gara politika sektorial guztietan. Betebehar bat izan beharrea, lehiakortasuna irabazteko aukera gisa hartzen dugu, ingurumenarekiko errespetuak gure ekonomiari zein gizarteari balio erantsia ematen diela sinetsita. IHOBek funtsezko zeregina du erronka horretan, eta, lerro hauetatik, 2024an egindako aurrerapen eta lorpen nagusiak ezagutzera gonbidatzen zaituztet.

Mikel Jauregui Letemendia

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua. Eusko Jaurlaritza

IHOBEren presidentea



### **Etorkizunerako ekintza eraldatzailez betetako urtea**

2024a etorkizunerako oinarriak ezarri dituen urtea izan da. Aurten, Euskadik urrats erabakigarria eman du Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Legea onartuta. Horrek indartu egiten du neutraltasun klimatikoarekin eta 2050erako trantsizio justuarekin dugun konpromisoa, eta aldaketaren motor gisa kokatzen gaitu, arintze-politikak, lurralde-egokitzapena klima inpaktuen aurrean eta inor atzean ez geratzea bermatuko duen gizarte-ekitatea bizkortuz.

2024ak ere Euskadi Europako abangoardian jarri du, Teknologia Garbien Zerrenda berria argitaratuta, energia-trantsizioa eta ekonomia zirkularra bultzatzeko funtsezko tresna fiskala. Zerrenda honi esker, enpresek teknologia jasangarrietan inbertitzeko kostuaren % 30 kendu ahal izango dute, eta gure ekonomiaren deskarbonizazioa bizkortzeko funtsezko tresna bihurtuko da.

Eta haratago begiratzen dugu, 2025era begiratzen dugu, ilusio eta erabaki berarekin. Apirilean Basque Circular Summit itzuliko da, Europa hegoaldeko ekonomia zirkularreko ekitaldirik handiena. Hiru egunez, Bilbo izango da erronkak eta aukerak aztertzeko, aliantzak sendotzeko eta Euskadik garapen eredu jasangarriago baterantz aurrera egiteko inspirazio-iturri gisa duen zeregina nabarmentzeko agertokia.

Memoria honek mugari horiek eta beste asko jasotzen ditu, eta IHOBEn sinetsita gaude euskal gizartearen inspiratzea eta mobilizatzea dela etorkizun jasangarria eraikitze bidea. Gogor lan egiten jarraituko dugu, trantsizio energetikoa eta klimatikoa guztiok partekatzen dugun errealitatea izan dadin, gure inguruneak eta gure garaiak eskatzen dituzten aldaketak ausardiaz gidatuz.

Alexander Boto Bastegieta

IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren zuzendari nagusia. Eusko Jaurlaritza

## 2 IHOBEREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

<b>Sozietate-izena</b>	<b>Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, IHOBE SA</b>
Erakundearen helbidea	Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua – 48011– Bilbo ( Bizkaia)
Telefono-zenbakia	+34 944 23 07 43
Irismena	Eusko Jaurlaritzari Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-politika garatzen eta ingurumen-jasangarritasunaren kultura hedatzen laguntzeko proiektuak eta zerbitzuak kudeatzea.
IFZ	A01024223
CNAE	74.90. Beste inon jasota ez dauden jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak. 84.11. Administrazio publikoaren jarduera orokorrak.
Lege-arduraduna	Alexander Boto Bastegieta
Ingurumen-arduraduna	María García Flecha
Helbide elektronikoa	emas@IHOBE.eus

1. taula. Identifikazio-datuak

### 3 ERAKUNDEAREN AURKEZPENEA

IHOBEren xedea da ingurumena hobetzen laguntzea, politika sektorialetan ingurumen-irizpideak txertatuz gure herrialderako eta bertako erakundeetarako lehiakortasunerako balio-elementu gisa.

Erakunde publikoa gara, eredugarria eta berritzailea, eta ingurumen-hobekuntza sustatzen dugu Euskadin, administrazio publikoekin, enprekin eta herritarrekin lankidetzan. Euskadiko ingurumen-erloto erreferentea izan nahi dugu, eta Euskadi jasangarritasunean eta ingurumen-babesean nazioartean erregio aurreratua izaten lagundu nahi dugu.

2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) Euskadi Basque Country 2030 Agendan jasota daude eta erreferentzia ditugu, gure jarduerak bat egin dezan giza garapen jasangarriari bide emateko ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile batekin.

#### 3.1 XEDEA

Gure xedea da ingurumena babestea eta hobetzea eta Euskadiren jasangarritasunerako trantsizioa lantzea. Horretarako, kalitatezko ezagutza teknikoa sortu eta zabalduko da, politika publikoak diseinatzen, zabaltzen eta ebaluatzen lagunduko da eta ekintza-tresnak garatuko dira gizartea eta eragileak mobilizatzeko eta laguntza emateko eraldaketa jasangarria izan dadin.

IHOBE Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa den aldetik, ingurumena babesten eta hobetzen dugu, Euskadiko trantsizio klimatikoari lotutako erronka nagusiei helduz, eta, horrela, Euskadiren erresilientzia eta lehiakortasuna hobetuz.

#### 3.2 ERRONKAK

Agenda 2030ekin lerrokatuta Euskadiren trantsizio ekologiko-klimatikoa sustatzen duen erakunde publikoa izatea.

IHOBEren posizioa indartzea, Euskadiko trantsizio klimatikoa eta garapen ekonomiko jasangarria gidatzeko funtsezko eragile publiko gisa.



Arau-eskakizunei erantzuten laguntzea, Euskadin ingurumen-plangintza politikoa hedatzen eta ingurumena beste politika sektorial batzuetara zeharkakotzen lagunduz eta erraztuz.

Interes-talde sorta zabal batekin lankidetzan aritzea, Euskadin klima-trantsizio justua bultzatzeko.

IHOBE erakunde bikaina bihurtzea, giza taldearen eta erakundearen beraren gaitasunak egokitzen direla ziurtatuz, lurraldeari balioa emango dion kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzeko.

#### 3.3 2024KO JARDUERA BEGIRATU BATEAN



IHOBEk Ingurumenaren integrazio sektorialari laguntzen dioten tresna publikoak sortu eta kudeatzen ditu eta ezagutza aplikatua transferitzen du erabakiak hartzen laguntzeko. Erakundeak bere lana egituratzeko honako jarduketa-eremuak oinarritzat hartzen ditu:

Jarduketa-eremua	Egitasmoak / Proiektuak	GJHen gaineko inpaktua
KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	Life IP Urban Klima 2050	
	Naturan Oinarritutako Konponbideak (NBS, ingelesez)	

	Euskadin. 20 arrakasta-kasu klima-aldaketara egokitzeko	
	Klimatek: I+G proiektuak, berrikuntza eta frogak klima-aldaketarekiko egokitzapenean Euskadin	
<b>EKOBERRIKUNTZA</b>	2024ko teknologia garbien zerrenda	
	“Ekoberrikuntzako proiektuen fabrika”	
<b>EKONOMIA ZIRKULARRA</b>	Climate&Circularity Calculator	
	Basque Ecodesign Center	
	Basque Circular Hub Arrasate-Mondragón	
	Ekonomia zirkularerako 10 gako enpresentzat 2024rako	
<b>TOKI-JASANGARRITASUNA</b>	Udalsarea 2030	
	Isuri gutxiko eremua	
	Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030	
	Let´s Clean Up Euskadi!	
	Asteklima 2024	
<b>KUTSATUTAKO LURZORUAK BABESTE A ETA BERRESKURATZEA</b>	Lurzorua Babesteko Estrategia	
<b>HONDAKINAK KUDEATZEA ETA INGURUMEN-AZPIEGITURAK</b>	Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana 2030	
	Udaletako amianto-erroladak	

2. taula. 2024ko ekimenak eta proiektuak

Multzotan hartuta, honako kopuru hauetan zehaztu daiteke gure ekintza:

<b>3.078</b>	Ekintzak udalerriekin eta erakunde publikoekin klima-aldaketan, lurzoruetan, ekonomia zirkularrean eta erosketa berdean mobilizatzeko (+% 61, 2023rekin alderatuta).	
<b>80</b>	Hondakinak biltzeko eta garbitzeko ekintzak <b>Lets Clean Up Euskadi!</b> ekimenaren barruan.	
<b>148.157</b>	Bisitak <b>Ekoetxeetara</b> (+% 5, 2023rekin alderatuz)	

<p><b>106</b></p>	<p><b>Erronka Garbiarekin</b> ingurumen-ziurtagiria duten ekitaldiak</p>	
<p><b>114</b></p>	<p>Jarduera <b>Asteklima</b> 2024n</p>	
<p><b>+400</b></p>	<p>Enpresa ari dira <b>Climate&amp;Circularity Calculator</b> tresna erabiltzen karbono-aztarna ebaluatzeko</p>	
<p><b>67</b></p>	<p>Udalerriak egin dituzte <b>Klimari eta energiari buruzko tokiko planak</b></p>	
<p><b>12.609</b></p>	<p>Ekintza enpresekin ekonomia zirkularrean, klima-aldaketan eta lurzoru kutsatuetan mobilizatzeko</p>	

3. taula. IHOBEn 2024ko jardueraren magnitude nagusiak

**Teknologia Garbien Euskal Zerrenda** berria 2024an onetsi zen. 64 teknologia garbi jasotzen dituen zerrendak % 30eko kenkaria eskaintzen du Sozietateen gaineko zergan teknologia horietako bat eskuratu izanagatik.

IHOBEk lehenengo aldiz 2024an eskaini zuen eta webgunean eskuragarri dagoen **Climate&Circularity Calculator** tresnari esker, erakundeen eta produktuen ingurumen-ebaluazioak egin daitezke. Ia 400 euskal enpresek erabiltzen dute.

**Basque Green Talent** prestakuntzarako eta praktikak egiteko programa bat da ekonomia zirkularren eremuan eta gazteei zuzenduta dago. Lehen edizioa 2024ko uztailean izan zen. Programa hori IHOBEk eta Novia Salcedo Fundazioak elkarrekin egindako lanaren emaitza da. Proiektua Europako eta EAEko Gizarte Funtzaren bitartez egiten da eta funts horrek finantzatzen du zati batean.

IHOBEk zenbait saio eskaini zituen **Emisio Gutxiko Eremuen (EGE)** inguruan udalerrientzat, eremu horiek ezartzen laguntzeko. Gainera, Udalsarea erakundeak EGERako lantalde bat sortu zuen eta gakoak eta ikaskuntzak bildu zituzten EGE ezarri duten udalerriei edo etorkizunean ezarri nahi dutenei laguntza eta orientabideak emateko.

### 3.4 PLAN ESTRATEGIKOA 2024-2028

IHOBEren 2024-2028 urteetarako Plan Estrategikoak jarduketa-esparru bat ezartzen du eta esparru horrek bideratzen du erakundeak egiten duen ekarpena urte horietan Euskadiko ingurumena hobetzeko. Plan horrek Eusko Jaurlaritzaren lehentasunekin eta trantsizio ekologikoaren, ingurumen-berrikuntzaren eta ekonomia zirkularraren erronkekin lerrokatutako ibilbide-orria definitzen du. Xedea IHOBek jasangarritasunaren arloan erreferentziatzeko agentzia publiko gisa duen papera indartzea da inpaktua sortzeko duen gaitasuna bultzatuz. Gainera, lurraldeko agenteei lagundu nahi zaie eta barne-kudeaketako etengabeko hobekuntza indartu nahi da.

Testuinguru horretan, plan estrategikoak sei helburu estrategiko egituratzen ditu eta horiek gidatzen dituzte erakundearen jardura eta proiektu guztiak. Hauek dira helburu estrategikoak:


- **1.H.E.**– IHOBEren kokapen estrategikoa indartzea, eta agente gako gisa duen rola finkatzea Euskadiko ingurumen-politikak planifikatzen eta betetzen direnean.
- **2.H.E.**– Jasangarritasunaren integrazioa eta ingurumen-berrikuntza sustatzea lurraldeko sektore guztietan, tresnak, ezagutza eta laguntza teknikoa bultzatuz, eredu jasangarriagoetarako trantsizioa errazten dutenak.
- **3.H.E.**– Aktiboki laguntzea Euskadiko ingurumen-politika garatzen, babes teknikoa, datu estrategikoak eta trebetasunak emanez ebidentzian oinarritutako erabakiak hartze aldera.
- **4.H.E.**– Aliantzak indartzea eta sortzea, ahalbidetzen dutenak munduko ingurumen-erronkei batera eta modu efizienteagoan aurre egitea. Horretarako, kolaborazioa sustatuko da administrazio publikoekin, enprekin, teknologia-zentroekin eta bestelako agente gakoekin.
- **5. H.E.**– Erakunde-kultura eraikitzea kudeaketa aurreratuaren printzipioetan oinarrituta, barne-prozesuetan bikaintasuna, gardentasuna eta etengabeko hobekuntza bultzatuz.
- **6.H.E.**– Pertsonak kudeatzeko sistema aurreratu bat ezartzea, IHOBE erakunde erakargarri gisa kokatzeko, lantaldeen garapen profesionalarekin eta ongizatearekin konprometituta dagoena.

Helburu horiek IHOBEren plangintzan eta kudeaketan integratzean bermatu egiten da ikuspegia koherentea dela ingurumena etengabe hobetzearekin, eta erakundeak balio publikoak sortzeko eta egungo eta etorkizuneko ingurumen-erronkei erantzuteko duen gaitasuna indartu egiten da.

### 3.5 EGITURA, FUNTZIOAK ETA ARDURAK

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Ingurumen Sailburuordetzari atxikita dagoen sozietate publikoa da IHOBE.

#### 3.5.1 Administrazio-egitura



1.iru. Administrazio-egitura

IHOBEren **Administrazio Kontseilua** da sozietate publiko honen kudeaketa- eta ordezkari- organoa.

Administrazio Kontseiluaren eskumenak sozietatearen estatutuetan zehaztutakoak dira. Honako hauek azpimarratu daitezke:

- Sozietatea ordezkatzeko era guztietako egintza eta kontratuak.
- Urteko Kudeaketa Plana onartzea, aurrekontuen proposamena barne sartuta, eta planaren gauzaperari buruzko ebaluazio partzialak egitea.
- Sozietatearen gizarte-erantzukizunari buruzko politika onartzea eta horren aplikazio-maila kontrolatu eta gainbegiratzea.

IHOBE sozietate publikoaren estatutuaren arabera, Administrazio Kontseiluak gutxienez hiru kide eta gehienez zazpi izango ditu.

#### 3.5.2 Zuzendaritza-egitura

IHOBE estrategikoki sozietate publiko gisa dago egituratuta, eta bikaintasuna bilatzen du kudeaketa aurreratuan. 2020-2024 aldirako antolaketa-egiturak lau arlo operatibo ditu oinarri. Hala, lau arlo operatibo horiek, zuzendaritza estrategikoekin eta zuzendaritza nagusiarekin koordinatuta, buru dira Euskadiko ingurumena hobetzeko proiektuetan, klimaren aldeko ekintzari, ekonomia zirkularrari eta ingurumen-jasangarritasunari dagokienez. Oro har hartuta, IHOBEren barne-egituraren % 77 emakumeak dira eta % 23 gizonak.



2. iru. Zuzendaritza-egitura

### 3.6 INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA (IKS)

IHOBE sozietate publikoaren Ingurumena Kudeatzeko Sistemak (IKS) haren etengabeko hobekuntza bermatzen duen talde baten eguneroko lana du oinarri. Sistemaren maila goreneko arduradunak IHOBE sozietate publikoaren zuzendaritza eta Administrazio Kontseilua dira. Biek kudeaketa-politika eta ingurumen-helburuak ezartzen dituzte, erakundearen estrategiarekin eta testuinguruarekin bateragarriak izan daitezzen, eta gizarteko pertsona guztiei helarazten dizkiete horiek. Sistemak behar bezala funtzionatzeko behar diren baliabideak ematen dituzte; hala, aurreikusitako helburuak lortu eta arriskuei eta aukerei aurre egiteko planifikatutako ekintzak berrikusten dituzte. Halaber, kudeaketa-sistema berrikusten dute, kudeaketa eraginkorra eta erakundearen ingurumen-jarduna hobetzea sustatzen dute, eta ingurumen-kudeaketako sistemari buruzko informazio egokia ematen diete alderdi interesdunei.

Zuzendaritza Nagusiarekin batera, zuzendari juridikoak sistemaren ardura hartzen du eta helburuak egunez egun lortzen, mantentzen eta hobetzen direla ziurtatzen du. Gainera, sistemaren funtzionamenduaren berri ematen dio Zuzendaritza Nagusiari, efizientzia berrikusi eta alderdi horri dagokionez hobera egin ahal izateko.

Duela hamarkada bat baino gehiagotik, IHOBE sozietate publikoak kudeaketa-sistema aitortuak ezarri ditu maila guztietan bere funtzionamenduaren zati integral gisa.

Ingurumen-arduradunak eta estrategia-, berrikuntza-, eta lege-teknikariek osatzen dute IHOBE sozietate publikoaren ingurumen-kudeaketa taldea. Honako eginkizun hauek betetzen ditu: adierazleen jarraipena egitea, helburuak lortzea ahalbidetuko duten ekintzak definitzea, sistemaren hobekuntzak proposatzea eta urteko ingurumen-adierazpena egitea. Era berean, ingurumen-alderdiekin, lege-eskakizunekin eta beste baldintza batzuekin, barneko eta kanpoko kontuekin eta alderdi interesdunen beharrek lotutako arriskuei eta aukerei heltzeko ekintzen plangintzan eta jarraipenean laguntzen du. Azkenik, bizi-zikloaren ikuspegia ingurumen-alderdiak eta -inpaktuak identifikatzean eta lanak kontrolatzeko neurriak ezartzean sartzea zeinen garrantzitsua den jakinarazten die gizarteko pertsonari.

Azkenik, azpimarratu behar da IHOBE sozietate publikoa osatzen duten guztiek laguntzen dutela erakundearen ingurumen-politika praktikan aplikatzen eta sistema modu eraginkorrean ezartzen. Horrekin, erakundearen ingurumen-inpaktua murriztea lortzen da eta ingurumen-adierazleak

etengabe hobetzen dira. Larrialdi-egoeretan ere azkarrago eta arinago erantzuten da, eta, horrela, ingurumenaren gaineko inpaktuak minimizatzen dira. Azkenik, eraginkortasuna handitzen da IHOBek enpresa laguntzaileekin, enpresa hornitzaileekin eta kontratistekin duen koordinazioan, eta gizarte osoaren ingurumen-jarduna hobetzen duten proiektuak garatzen dira.

Informazio publikoaren eta gardentasunaren aldeko konpromisoaren ondorioz, IHOBEn sozietate publikoak EMAS erregelamenduaren arabera txostena egin du hamargarren urtez jarraian. Horiei guztiei esker, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaile gisa sozietate publiko hau egiaztatzen duen ziguarekin batera ere, IHOBek modu antolatu eta sistematizatu hiltzen die sistemetan lantzen diren gai guztiei. Benetako “politika korporatiboa” da, zerbitzuaren eraginkortasuna eta baliabideen erabilerearen efizientzia areagotzen dituen.

IHOBEn sozietate publikoaren Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS) borondatezko tresna da, eta haren bidez kudeatzen du erakundeak bere ingurumen-portaera, funtsezko hiru zutaberen arabera:

1. Indarrean dagoen araudia eta onartutako borondatezko akordioak betetzea.
2. Alderdi interesdunak inplikatzea.
3. Ingurumena babesteko etengabe hobera egitea, gure jarduerak sortutako alderdi esanguratsuek ezabatu edo/eta murriztu nahian.

Etengabeko hobekuntza hori gauzatzeko, helburuak planifikatu behar dira (IHOBEn sozietate publikoaren politika korporatiboarekin bat etorritik), beharrezkoak diren jarduerak, proiektuak eta zerbitzuak ezarri eta garatu behar dira, eta jarduerak neurtu eta egiaztatu behar dira.

Ingurumen-kudeaketako eskuliburuak, jarduerak eta zereginak nola egin behar diren deskribatzen duten prozedurek eta erregistroek osatzen dute IKSa. Horiek datuak jasotzen dituzte, eta jarduerak abian jarri ondoren lortutako informazioa biltzen dute.



1. ilustrazioa. Ingurumen-kudeaketa sistema

### 3.7 INGURUMEN-KONPROMISOA

IHOBEk berresten du konprometituta dagoela jasangarritasunarekin eta ingurumen-babesarekin. Horretarako, politika eta praktika arduratsuak aplikatzen dira. Hala, 2020ko abenduan onetsi zen politika korporatiboa du eta ondoren horren inguruko xehetasunak emango ditugu. Politika horrek etengabeko hobekuntza, baliabideen erabilera efizientea eta herritarren ingurumen-kontzientziarioa sustatzen ditu eta IHOBEren webgunean kontsultatu daiteke oso-osorik ([https://www.ihobe.eus/sites/default/files/2025-05/Politica\\_Corporativa\\_dic2020\\_eusZin.pdf](https://www.ihobe.eus/sites/default/files/2025-05/Politica_Corporativa_dic2020_eusZin.pdf)).

**Ihobek ingurumenaren hobekuntza hartzen du helburutzat, ingurumen-irizpideak politika sektorialetan txertatuz, gure herrialdearentzat eta beraren erakundeentzat balio lehiakor jasangarria duen elementu gisa.**

Erakunde publiko, eredugarri eta berritzaile bat gara, Euskadiko ingurumen-hobekuntza bultzatzen duena administrazio publikoekin, enprekin eta herritarrekin lankidetzan arituz. Euskadiko ingurumenaren alorreko erreferentea izan nahi dugu, eta ingurumenaren hobekuntzan eta jasangarritasunean aurreratua den eskualde gisa nazioartean kokatzen lagundu nahi diogu.

**2030rako GJHak** –Euskadi Basque Country 2030 Agendan jasoak- hartzen ditugu erreferentziatzat gure jarduna ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile baten bidetik eramateko, giza garapen jasangarria bultzatzea xedetzat hartuta.

Horretarako, alderdi interesatuek gugandik espero dutena eta eskatzen digutena integratu eta atenditzen dugu, eta politika korporatibo hau gureganatzen dugu. Beraren bidez, gure jardura gauzatzen dugu lau zutabe hauetan oinarrituta:

#### **Kudeaketa publiko aurreratua.**

Gobernu Korporatiboko jardunbide aurreratuari helduz, garatzen ditugun jardueren efizientzia eta etengabeko hobekuntza lortuz, jardunbide jasangarriez baliatuz, gure baliabideak modu arduratsu eta eraginkorrean administratuz.

Erakundearen helburuen lorpenean eragina izan lezaketen arriskuak kudeatuz, arrisku horiek minimizatu eta aukerak aprobetxatu ahal izateko.

Gure pertsonen eta gure erakunde hornitzaileen zein bezeroen babeserako egokiak diren lan-baldintza seguru, jasangarri eta osasungarriak bultzatuz, laneko arriskuen prebentzioa gure jardunaren maila guztietan integratzen dela segurtatuz.

Gure jardunean aplikatzekoak diren edo gure borondatez onartzen ditugun erreferentziako arauetan eta legezko zein arauzko esparruetan ezarritako betekizunak betez.

#### **Pertsona motibatuak eta arduratsuak, berdintasunarekin eta euskararekin konprometitua.**

Gure pertsonak inplikaturik, motibatuz eta haien gogobetetasuna lortuz, lidergoaren bidez eta pertsonen garapen profesionalaren bitartez.

Euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren normalkuntzarekin konprometituta, gure erakundearen eta gure pertsonen aldetik.

Emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna bermatzera zuzendutako neurriak ezarri, hala lan-baldintzetan nola enpleguaren kalitatean, eta baita erakundearen kanpora begirako jardueretan ere, eta, horri lotuta, sexu-jazarpena eta sexuak eragindako jazarpena prebenitzeko eta eragozteko ekintza espezifikoak ere gauzatuz.

#### **Gure bezeroen beharretara orientatuta, gure hornitzaileekin lankidetzan arituz.**

Harreman jasangarri bat eraikiz gure erakunde hornitzaileekin, eta tratu-berdintasuna eta konkurrentzia-printzipioa bermatuz, prozesu garden, objektibo eta inpartzialen bitartez.

Haien beharrak atenditzeko eta betetzeko xedez egindako jardueri buruzko informazio esanguratsua eta egia emanez alderdi interesatuei, modu gardenean. Gure bezero diren erakundeei balioa etengabe erantsiz, konfiantzaren eta etengabeko elkarriketaren bidez.

#### **Aliantza-sare bat bultzatuz eta berrikuntza gure identitatearen osagai gisa sustatuz.**

Konfiantza eta elkarren arrakastan oinarritutako aliantza-sare bat ehunduz. Sormena, inspirazioa eta berrikuntzaren kudeaketa sustatuz, etorkizuna eta gure lehiakortasunaren hobekuntza bermatzeko bide gisa. Informazio erabilgarria jasotzeko, aztertzeko, balioesteko eta hedatzeko lana sistematizatuz, Zaintza eta Adimen prozesuaren bitartez, gure bezeroei balio erantsia emateko.

Ingurumena babestearen eta kutsadura prebenitzearen alde lan eginez, ikuspegi jasangarri batetik, eredugarritasunaren eta Ihobeko pertsona guztiak ingurumen- eta gizarte-hobekuntzan inplikatzearen bidez, gure jardunetik harago.

**ALEXANDER  
BOTO  
BASTEGUIETA**  
Firmado digitalmente por  
ALEXANDER BOTO  
BASTEGUIETA  
Fecha: 2020.12.18  
10:24:46 +01'00'

2020ko abendua  
**Alexander Boto Bastegieta**  
Ihobeko Zuzendari Nagusia

3. iru. Korporazio-politika

## 4 INGURUMEN-ALDERDIAK

IHOBE sozietate publikoak egiten dituen jarduera guztiak inpaktu inplizitua dute ingurumenean. Magnitudea gorabehera, inpaktu horiek kontuan hartzen dira erakundearen ingurumen-kudeaketa planifikatzen denean.

IHOBE sozietate publikoak bizi-zikloaren ikuspegitik identifikatzen ditu bere ingurumen-alderdiak; hala, alderdi interesdunekiko erlazioa aztertzen du, eta baloratu egiten du haiengan eragiteko duen gaitasuna.

Bizi-zikloaren kontzeptuak erreferentzia egiten dio sistema baten (produktu edo zerbitzu baten) ondoz ondoko eta elkarri lotutako etapak identifikatzeari, lehengaiak eskuratzetik edo baliabide naturaletan oinarrituta lehengaiak sortzetik azken bitartekora arte. IHOBEren jardueraren bizi-zikloa aztertuz gero, beraz, gure jarduerak ingurumenean izan dezakeen inpaktua ebaluatuko dugu, eta, horretarako, baliabideen erabilera (energia, lehengaiak, ura eta abar) eta ingurumen-isuriak (airera, uretara eta lurrera isuritakoak) kuantifikatuko ditugu etapa horietako bakoitzean.





IHOBE sozietate publikoaren jarduerari dagokionez, proiektuak kudeatzen ditu, Eusko Jaurlaritzari laguntza-zerbitzuak ematen dizkio ingurumen-politikak sustatzeko eta ingurumen-jasangarritasunaren kultura bultzatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan. Proiektu eta zerbitzu horiek kudeatzeko elkarren segidako hiru etapa garatzen dira, eta horiek barnean hartzen dituzte gure jardueraren bizi-zikloaren lau faseak:

1. Plangintza-etapa: proiektua edo zerbitzua diseinatzeko fasea (alderdi interesdunen beharrak identifikatzea, helburuak, espero diren emaitzak, beharrezko baliabideak, epeak...) eta horiek garatzeko beharrezkoak diren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko fasea (normalean hornidurak erostea eta laguntza-zerbitzuak kontratatzea, aholkularitza espezializatua...).
2. Garapen-etapa: proiektua edo zerbitzua gauzatzeko fasea (adierazleen jarraipena, emaitzen ebaluazioa, gogobetetze-analisia...).
3. Itxiera-etapa: bizi-amaiera eta proiektua edo zerbitzua entregatzeko fasea (proiektua edo zerbitzua amaitzea, hobekuntzak aztertzea...).



2. irudia. IHOBEren jardueraren berezko bizi-zikloaren faseen eskema estandarra

Eskeman jasota, irudi honetan agertzen dira IHOBEren jardueraren bizi-zikloaren fase bakoitzean identifikatutako ingurumen-alderdi garrantzitsuenak, baita GJHen gaineko inpaktuaren ingurukoak ere.

	PLANGINTZA		GARAPENA	ITXIERA
Bizi-zikloaren faseak	Produktua/zerbitzu a diseinatzea	Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea	Produktua/zerbitzu a egin edo ematea	Lanen bizi-amaiera eta entrega
<b>Alderdiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehengaiaren eta energiaren kontsumoa</li> <li>- Sortutako hondakinak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehengaiaren eta energiaren kontsumoa</li> <li>- Erregaiaren kontsumoa</li> <li>- Garraioaren ondoriozko isurketak</li> <li>- Enpresa hornitzaileek ingurumenarekiko duten jokabidea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehengaiaren eta energiaren kontsumoa</li> <li>- Erregaiaren kontsumoa</li> <li>- Garraioaren ondoriozko isurketak</li> <li>- Sortutako hondakinak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehengaiaren eta energiaren kontsumoa</li> <li>- Enpresa hornitzaileek ingurumenarekiko duten jokabidea</li> </ul>
<b>Inpaktua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lurzoruaren eta uraren kutsadura</li> <li>- Baliabide naturalak agortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabide naturalak agortzea</li> <li>- Lurzoruaren eta uraren kutsadura</li> <li>- Ozono-geruza suntsitzea eta berotegi-efektua handitzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabide naturalak agortzea</li> <li>- Lurzoruaren eta uraren kutsadura</li> <li>- Ozono-geruza suntsitzea eta berotegi-efektua handitzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabide naturalak agortzea</li> </ul>
<b>Faseek GJHen gainean duten inpaktua</b>				

4. taula. IHOBEn jardueren bizi-zikloaren fase bakoitzean identifikatutako ingurumen-alderdi eta -inpaktu garrantzitsuenak eta fase bakoitzak 2030eko Agendan izandako inpaktuaren balioespena

#### 4.1 ZUZENKO ALDERDIEN EBALUAZIOA

Ekintzak lehenesteko eta eraginkortasuna lortzeko, IHOBEn garrantzi-maila bat ezarri du ingurumen-alderdiak ebaluatzerakoan. Urtero ebaluatu ondoren, esanguratsuak diren alderdiei lehentasuna ematen zaie helburuak ezartzei begira. IHOBEn sozietate publikoan ezartzen diren ingurumen-helburuak, egiten diren jarduerak eta horiekin zerikusia duten alderdiak elkarrekin lotuta daude, eta etengabeko hobekuntzarako informazio-iturri dira horiek guztiak.



4. iru. Ingurumen-alderdien ebaluazioa

IHOBE sozietate publikoak bere ohiko lan-baldintzak (ohiko baldintzak) eta noizbehinka gerta daitezkeenak (ezohiko baldintzak) zehaztu ditu, ingurunean eragina izan dezaketen ingurumen-alderdiak eta lotutako inpaktuak ezagutzeko.

Identifikazio horretan ohiz kanpo gerta daitezkeen baldintzak ere sartzen dira (larrialdi-baldintzak). Egoera horiek suteek, leherketek, uholdeek edo antzekoek eragin ditzakete. Horrenbestez, arriskuak eta lotutako ingurumen-alderdiak identifikatu nahi dira, egoera horiek gertatuz gero inpaktua minimizatzeko eta dagozkion prebentzio- eta jarduketa-neurriak aurreratzeko.

Alderdiak eta horien inpaktuak identifikatuta, guztien ebaluazio xehatua egiten da urtero, haien garrantzi-maila (ohiko eta ezohiko baldintzen kasuan) eta arrisku-maila (larrialdi-baldintzen kasuan) zehazteko. Maila horiek irizpide hauen arabera kalkulatu dira.

#### 4.1.1 Alderdi esanguratsuen ebaluazioa baldintza normaletan eta anormaletan




$$S = 2M + I$$



- **S = Esangura.**
- **M = Magnitudea.** Alderdi baten kantitatea, jarduera-bolumenaren neurketa-unitate baten arabera sortutakoa.
- **I = Garrantzia** Inpaktu baten garrantzia, alderdia sortzen den ingurumen-baldintzen arabera.

Ebaluazio-irizpide horiek kontsumoa, hondakinak, emisioak eta isurketak ebaluatzeko aplikatuko dira.

Hona hemen IHOBE sozietate publikoaren ingurumen-alderdiak identifikatzen eta ebaluatzen dituen taula xehatu bat; alderdi horiek baldintza normaletan eta anormaletan gertatzen dira. Taula horretan 2024an esanguratsuen izan ziren alderdiak adierazten dira aurreko hiru urteetako batez besteko datuak aintzat hartuta.





#### Baldintza normaletan gertatzen diren ingurumen-alderdi zuzenen identifikazioa:

	Alderdia	Ingurumen-inpaktua	GJHen gaineko inpaktua
Kontsumoak	Energia elektrikoa	Baliabide naturalak agortzea	
	Gas naturala		
	Ura		
	Papera		
	Toner-kartutxoak		
	Ibilgailuen erregaia		
	Hegazkinen erregaia		
Hondakinak	Papera eta kartoia	Lurzoruaren eta lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura	
	Ontziak eta plastikoak		
	Zaborra		
	Toner-kartutxoak		
Isurketak	Sanitarioak	Lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura	

	Alderdia	Ingurumen-inpaktua	GJHen gaineko inpaktua
Isuriak	Berotegi-efektuko gasak	Berotegi-efektua areagotzea	 








5. taula. Baldintza normaletan gertatzen diren ingurumen-alderdi zuzenen identifikazioa

Horietatik alderdi hauek dira esanguratsuak:

	Alderdia	Ingurumen-inpaktua	GJHen gaineko inpaktua
Kontsumoak	Papera (erakunde barnekoa)	Baliabide naturalak agortzea	   
	Ibilgailuen erregaia (ibilgailu pribatuak)		
	Hegazkinen erregaia		
	Toner-kartutxoak		
Hondakinak	Toner-kartutxoak	Lurzoruaren eta lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura	  
CO <sub>2</sub> e isuriak	Sortutako CO <sub>2</sub> isuriak	Berotegi-efektua areagotzea	

6. taula. Baldintza normaletan gertatzen diren ingurumen-alderdi zuzenen identifikazioa


**Baldintza anormaletan gertatzen diren ingurumen-alderdi zuzenen identifikazioa:**

	Alderdia	Ingurumen-inpaktua	GJHen gaineko inpaktua
Kontsumoak	Bulego-ekipoak	Baliabide naturalak agortzea	   
	Bulegoko altzariak		
	Fluoreszenteak		
	Ibilgailuen pneumatikoak		
	Ibilgailuen iragazkiak		
	Pilak		
Hondakinak	Bulego-ekipoak	Lurzoruaren kutsadura	  
	Bulegoko altzariak	Lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura	
	Fluoreszenteak		
	Ibilgailuen pneumatikoak		
	Ibilgailuen olioak		
	Ibilgailuen iragazkiak		
Pilak			

7. taula. Baldintza anormaletan gertatzen diren ingurumen-alderdi zuzenen identifikazioa

Analisia eta gero, ondorioztatu da ez dela esanguratsua baldintza anormaletan gertatzen den ingurumen-alderdi zuzen bat ere.

**Baldintza normaletan gertatzen diren ingurumen-alderdi zeharkakoen identifikazioa:**

Alderdia	Ingurumen-inpaktua	GJHen gaineko inpaktua
Alderdi interesdunek ingurumenarekiko duten jokabidea	Baliabide naturalak agortzea	
	Lurzoruaren kutsadura	
Enpresa hornitzaileek ingurumenarekiko duten jokabidea	Lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura	
	Ozono-geruza suntsitzea	
	Berotegi-efektua areagotzea	

8. taula. Baldintza normaletan gertatzen diren ingurumen-alderdi zeharkakoen identifikazioa

Analisia eta gero, ondorioztatu da ez dela esanguratsua baldintza normaletan gertatzen den ingurumen-alderdi zeharkako bat ere.

**4.1.2 Alderdi esanguratsuen ebaluazioa larrialdi-baldintzetan**

**R = G x F**

- **R = Arriskua.**
- **G = Larritasuna.** Ingurunean sor ditzakeen kalteen eta leheneratze posiblearen arabera.
- **F = Maiztasuna.** Gertaera-mailaren arabera.

	Larrialdi-egoera	Alderdia	Ingurumen-inpaktua	GJHen gaineko inpaktua
<b>Orokorra bulegoan</b>	Sute- edo leherketa-arriskua	Atmosferara egiten diren isuriak	Ozono-geruza suntsitzea	
		Hondakin geldoak sortzea	Berotegi-efektua areagotzea	
		Hondakin arriskutsuak sortzea		
		Ur-isurketak		
	Uholde-arriskua	Hondakin geldoak sortzea	Lurzoruaren eta lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura	
		Ur-isurketak		
<b>Orokorra bulegoan (Ibigailuen erabilerari lotuta)</b>	Jariatzeko arriskua	Atmosferara egiten diren isuriak	Ozono-geruza suntsitzea	
		Erregai, olio eta abarren ustekabeko isurketak	Berotegi-efektua areagotzea	
		Atmosferara egiten diren isuriak		
	Sute- edo leherketa-arriskua	Hondakin geldoak sortzea	Lurzoruaren eta lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura	
		Hondakin arriskutsuak sortzea		

9. taula. Ingurumen-alderdien identifikazioa larrialdi-baldintzetan

Larrialdi-baldintzetan ingurumen-alderdirik ez da izan esanguratsua 2024an.

## 5 INGURUMEN-ALDERDIAK HOBETZEA: 2024KO HELBURUAK

IHOBE sozietate publikoaren helburu orokorra ingurumen-portaeraren bilakaera hobetzea, erakustea eta komunikatzea da. Helburu horren arabera, bai eta legegintzaldiko funtsezko jomuga estrategikoen eta alderdien identifikazioaren eta ebaluazioaren arabera ere, urteko helburuak ezartzen dira. IHOBE sozietate publikoaren ingurumen-programa, orduan, programa hori lortzeko aurreikusitako helburuek, ekintzek, arduradunek, baliabideek eta epeek osatzen dute. Zehazki, 2024ko ingurumen-programak honako helburu hauek biltzen zituen:

Kodea	Jatorria	Helburua	Adierazlea	Ekintzak	Epea	Arduraduna	Baliabideak	GJHen gaineko inpartua
AA1	Paperaren erakunde barneko kontsumoa	Paperaren erakunde barneko kontsumoa % 5 murriztea	kg/pertsona	Kartelak jarriz sentsibilizatzea	2024	Ingurumena kudeatzeko taldea	Barnekoak	
AA2	Ibilgailuen erregaia (ibilgailu pribatuak)	Ibilgailu pribatuen erregaiaren kontsumoa % 5 murriztea	L/pertsona	Sentsibilizazioa, ibilgailu pribatuen erabilera murrizteko jardunbide onen bilaketa	2024	Ingurumena kudeatzeko taldea	Barnekoak	 
AA3	Alderdi interesdunek ingurumenarekiko duten jokabidea	Beste erakunde batzuen ingurumen-jarrera hobetzen laguntzea, babes-tresnak eginez	Argitaratutako tresna-kopurua	Erakundearen, produktuen eta zerbitzuaren karbono-aztarna eta erakundearen ingurumen-aztarna kalkulatzeko tresna bat garatzea eta argitaratzea	2024	Ekonomia Zirkularren Arloa	Barnekoak eta kanpokoak	 
OPO1	Beste agente eta erakunde batzuk mobilizatzeko ahalmena	Gure inguruko beste erakunde batzuekin lankidetzaren proiektuak hedatzea, ingurumen-jasangarritasuna eta klima-aldaketa lankidetzako eta elkartasuneko politikarekin integratzeko	Lankidetzaren esparruan garatutako ekintza-kopurua	Gutxienez lankidetzaren ekintza bat garatzea "garapenerako eta ingurumen eta jasangarritasunerako lankidetzaren arloko jardueraren protokolo orokorraren" baitan. Protokolo hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta IHOBERen artean sinatu zuten.	2024	Estrategia eta Berrikuntza Atala	Barnekoak eta kanpokoak	
OPO2	Beste agente eta erakunde batzuk mobilizatzeko ahalmena	IHOBERen eta Emakunderen artean egindako lankidetzaren proiektu pilotua hedatzea, toki-mailan genero-ikuspegia eta klima-aldaketa txertatzeko	Lankidetzaren esparruan garatutako ekintza-kopurua	Lantaldeak eratzea dekalogoak egiteko prozesua egiazatu eta adostasunak bilatzeko	2024	Ekintza Klimatikoaren Arloa	Barnekoak eta kanpokoak	

10. taula. Helburuak – 2024ko ingurumen-programa

## 5.1 AA1 HELBURUA: PAPERAREN ERAKUNDE BARNEKO KONTSUMOA % 5 MURRIZTEA

AA1 HELBURUA: Paperaren erakunde barneko kontsumoa % 5 murriztea	
Jarraipen-adierazlea	kg/pertsona
Planifikatutako ekintza	Kartelak jarritz sentsibilizatzea
Arduraduna	Ingurumena kudeatzeko taldea
Epea	2024
Esleitutako baliabideak	Barnekoak
Egindako ekintza	IHOBE paper gutxiago kontsumitzeko helburuarekin, langileei esan zitzaieen garrantzitsua zela paper gutxiago erabiltzea. Gainera, tresna teknologikoak erabiltzea sustatu zen eta horien inguruko prestakuntza espezifikoak eman zen. Neurri horiek, gainera, jakinarazi egin ziren eta kudeaketa-planari eta bere jarraipenari buruzko bileretan landu ziren. Hala eta guztiz ere, eta bulegoko langileen lana errazte aldera, eskuragarri zeuden inprimagailuen kopurua % 100ean handitu zen. Horren ondorioz, paperaren kontsumoa % 35,4 gehitu zen aurreko ekitaldietako batezbestekoekin alderatuta (2021, 2022 eta 2023).
Helburua betetzea	Eraitza horiekin ondorioztatu da helburua ez dela bete.

11. taula. AA1 helburua

## 5.2 AA2 HELBURUA: IBILGAILU PRIBATUEN ERREGAI-KONTSUMOA % 5 GUTXITZEA

AA2 HELBURUA: Ibilgailu pribatuen erregai-kontsumoa % 5 murriztea	
Jarraipen-adierazlea	L/pertsona
Planifikatutako ekintza	Sentsibilizazioa, ibilgailu pribatuen erabilera murrizteko jardunbide onen bilaketa
Arduraduna	Ingurumena kudeatzeko taldea
Epea	2024
Esleitutako baliabideak	Barnekoak
Egindako ekintza	Pertsona bakoitzeko ibilgailu pribatuen erabilerari lotutako erregai-kontsumoa gutxitzeko helburuarekin, azken urteetan hobekuntza teknologikoak egin dira (besteak beste, informatika-programak sustatu dira eta ekipoak berriak dira) eta prestakuntza-ekintzak antolatu dira tresna digitalak modu efizientean erabiltzeko, hala nola <i>Teams</i> edo antzeko aplikazioak.  Jarduketa horien emaitza gisa, ibilgailu pribatuen erregai-kontsumoa % 23,34 gutxitu da aurreko ekitaldietako batezbestekoekin alderatuta (2021, 2022 eta 2023). Aipatu beharra dago adierazlea kalkulatzeko oinarritzat hartu direla egindako kilometro guztiak eta ez dela kalkulatu zuzenean erregai-kontsumoa erregistratuz. Horrekin lotuta, 2021ean, 2022an eta 2023an batez beste 26.265 km egin ziren eta 2024an 21.324 km erregistratu ziren.
Helburua betetzea	Eraitza horiekin ondorioztatu da helburua bete dela.

12. taula. AA2 helburua

### 5.3 AA3 HELBURUA: BESTE ERAKUNDE BATZUEN INGURUMEN-JARRERA HOBETZEN LAGUNTZEA, BABES-TRESNAK EGINEZ

<b>AA3 HELBURUA: Beste erakunde batzuen ingurumen-jarrera hobetzen laguntzea, babes-tresnak eginez</b>	
<b>Jarraipen-adierazlea</b>	Argitaratutako tresna-kopurua
<b>Planifikatutako ekintza</b>	Erakundearen, produktuen eta zerbitzuaren karbono-aztarna eta erakundearen ingurumen-aztarna kalkulatzeko tresna bat garatzea eta argitaratzea
<b>Arduraduna</b>	Ekonomia Zirkularren Arloa
<b>Epea</b>	2024
<b>Esleitutako baliabideak</b>	Barnekoak eta kanpokoak
<b>Egindako ekintza</b>	Beste erakundeen ingurumen-jarrera hobetzen laguntzeko helburuarekin, <i>Climate &amp; Circularity Calculator</i> tresna garatu eta argitaratu zen. Horren bitartez, erakunde erabiltzaileek errazago kalkulatu dezakete karbono-aztarna. 2024an zehar 400 erabiltzailek baino gehiagok erabili zuten tresna hori. Horrenbestez, argi geratu da erabilgarria dela eta irismena duela.
<b>Helburua betetzea</b>	Beraz, helburua bete egin da.

13. taula. AA3 helburua

### 5.4 OPO1 HELBURUA: INGURUKO BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN LANKIDETZA-PROIEKTUAK HEDATZEA INGURUMEN-JASANGARRITASUNA ETA KLIMA-ALDAKETA LANKIDETZAKO ETA ELKARTASUNEO POLITIKAREKIN INTEGRATZEKO

<b>OPO1 HELBURUA: Inguruko beste erakunde batzuekin lankidetzaren proiektuak hedatzea ingurumen-jasangarritasuna eta klima-aldaketa lankidetzako eta elkartasuneko politikarekin integratzeko</b>	
<b>Jarraipen-adierazlea</b>	Lankidetzaren esparruan garatutako ekintza-kopurua
<b>Planifikatutako ekintza</b>	Gutxienez lankidetzaren ekintza bat garatzea "garapenerako eta ingurumen eta jasangarritasunerako lankidetzaren arloko jardueraren protokolo orokorraren" baitan. Protokolo hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta IHOBEren artean sinatu zuten.
<b>Arduraduna</b>	Estrategia eta Berrikuntza Atala
<b>Epea</b>	2024
<b>Esleitutako baliabideak</b>	Barnekoak eta kanpokoak
<b>Egindako ekintza</b>	<p>Inguruko erakundeekin lankidetzaren proiektuak sustatzeko helburuarekin, aurrera egin dugu batera egindako ekimenen hedapena planifikatzen. Ekimen horien xedea ingurumen-jasangarritasuna eta klima-aldaketarekiko egokitzapena integratzea da lankidetzaren eta elkartasunaren politikan.</p> <p>Testuinguru horretan, 2024ko azaroan Ihoberen eta Elankidetzaren arteko lehen topaketa antolatu zen helburu bikoitzarekin: erakunde biek elkar ezagutzeko eta 2025erako ibilbide-orria ezartzeko.</p> <p>Hala, erakunde bietako lantaldeen arteko jardunaldi tekniko bat egin zen lankidetzaren proiektuetan ingurumen-aldagaia txertatzeko eta elkarrekin lankidetzaren printzipioak ingurumen-ekimenetan sartzeko.</p>

<b>OPO1 HELBURUA: Inguruko beste erakunde batzuekin lankidetzaproiektuak hedatzea ingurumen-jasangarritasuna eta klima-aldaketa lankidetzako eta elkartasuneko politikarekin integratzeko</b>	
	Helburua 2024an hasi zen ezartzen eta hurrengo ekitaldietan garatzen jarraituko du.
<b>Helburua betetzea</b>	Beraz, helburua bete egin da.

14. taula. OPO1 helburua

### 5.5 OPO2 HELBURUA: IHOBEREN ETA EMAKUNDEREN ARTEAN EGINDAKO LANKIDETZA-PROIEKTU PILOTUA HEDATZEA, TOKI-MAILAN GENERO-IKUSPEGIA ETA KLIMA-ALDAKETA TXERTATZEKO

<b>OPO2 HELBURUA: IHOBERen eta Emakunderen artean egindako lankidetzaproiektu pilotua hedatzea, toki-mailan genero-ikuspegia eta klima-aldaketa txertatzeko</b>	
<b>Jarraipen-adierazlea</b>	Lankidetzaren esparruan garatutako ekintza-kopurua
<b>Planifikatutako ekintza</b>	Lantaldeak eratzea dekalogoak egiteko prozesua egiaztatu eta adostasunak bilatzeko
<b>Arduraduna</b>	Ekintza Klimatikoaren Arloa
<b>Epea</b>	2024
<b>Esleitutako baliabideak</b>	Barnekoak eta kanpokoak
<b>Egindako ekintza</b>	Helburu horren esparruan, zenbait jarduketa egin dira klima-aldaketa eta genero-ikuspegia toki-eremuan integratzea errazteko. Ekintza nagusien artean nabarmentzen da sei dekalogo tekniko praktiko sortu direla; gomendio operatiboak eta inspiratzaileak dira eta toki-erakundeei zuzenduta daude. Material horiek jarraibide zehatzak ematen dituzte bi ikuspegiak zeharka txertatzeko udalen lanaren arlo ezberdinetan.
<b>Helburua betetzea</b>	Emaitzak ikusita, ondorioztatu da helburua bete egin dela.

15. taula. OPO2 helburua

## 6 ERAKUNDEAREN INGURUMEN-JOKAERA

### 6.1 KUDEAKETA-SISTEMAREN ADIERAZLEAK

Erakundearen ingurumen-jokaeraren jarraipena eta ebaluazioa adierazleen bidez egiten da. Ingurumena kontrolatzeko eta kudeatzeko modu eraginkorra da, eta, aldi berean, ingurumen-datuak modu zenbagarri eta zehatzean aurkezteko aukera ematen du. Zehazki, IHOBE sozietate publikoan Midenet barne-aplikazioak ematen ditu adierazleak kalkulatzeko euskarria eta oinarria. Tresna horrek adierazleak biltzea eta kudeatzea errazten dio erakundeari.

Adierazleen artean bi mota bereizi dira:

- Hobetzeko balio objektiboak duten adierazleak: Lortu beharreko balio objektiboak ezarri zaizkien adierazleak.
- Muga-balioa duten adierazleak: Prozesua kontrolpean izateko erreferentzia-balio bat definitu zaien adierazleak.

Honako hau da adierazleen bidez ebaluatutako<sup>1</sup> ingurumen-informazioa:

Ingurumen-eremua	Adierazleak	Adierazle-mota
<b>Energia</b>	Energiaren zuzeneko kontsumoa, guztira	Oinarritzkoa
	Energia elektrikoaren kontsumoa	Espezifikoa
	Gas naturalaren kontsumoa	Espezifikoa
	Erregaiaren kontsumoa	Espezifikoa
	Energia berriztagarriaren kontsumoa, guztira	Oinarritzkoa
	Sortutako energia berriztagarria, guztira	Oinarritzkoa
<b>Materialak</b>	Erabilitako material nagusien urteko masa-fluxua	Oinarritzkoa
	Paperaren erakunde barneko kontsumoa	Espezifikoa
	Paperaren kanpoko kontsumoa	Espezifikoa
	Toner-kartutxoaren kontsumoa	Espezifikoa
<b>Hondakinak</b>	Urtean sortutako hondakinak, guztira	Oinarritzkoa
	Urtean sortutako hondakin arriskutsuak, guztira	Oinarritzkoa
	Urtean sortutako hondakin ez-arriskutsuak, guztira	Espezifikoa
	<i>Sortutako paperezko eta kartoizko hondakinak</i>	Espezifikoa
	<i>Sortutako ontzien eta plastikoen hondakinak</i>	Espezifikoa
	<i>Sortutako zaborra</i>	Espezifikoa
	<i>Sortutako toner-kartutxoaren hondakinak</i>	Espezifikoa
<i>Sortutako bulegotika-hondakinak</i>	Espezifikoa	
<b>Isuriak</b>	Airerako urteko isuriak (NOx), guztira	Oinarritzkoa
	Airerako urteko isuriak (SO2), guztira	Oinarritzkoa
	Airerako urteko isuriak (PM), guztira	Oinarritzkoa
	BEGen urteko isuriak, guztira (CO2, CH4, N2O, HFC-ak, PFC-ak, NF3 eta SF6)	Oinarritzkoa
<b>Ura</b>	Uraren urteko erabilera, guztira	Oinarritzkoa
<b>Lurzoruaren erabilera biodibertsitateari dagokionez</b>	Lurzoruaren erabilera, guztira	Oinarritzkoa
	Azalera zigitatua, guztira	Oinarritzkoa
	Zentroan naturaren arabera orientatutako azalera, guztira	Oinarritzkoa
	Zentrotik kanpo naturaren arabera orientatutako azalera, guztira	Oinarritzkoa

16. taula. Kudeaketa-sistemaren adierazleak

<sup>1</sup> **Ohar metodologikoa:** Adierazle erlatiboak kalkulatzeko IHOBEren bulegoetan lan egiten dutenen kopurua hartu da kontuan: 2021ean = 58; 2022an = 74; 2023an = 63 eta 2024an = 56.

Adierazleak kalkulatzeko erabili diren datuetako batzuk Bizkaia Plaza eraikineko arduradunek eman dituzte, bertan baitaude IHOBEren bulegoak.


## 6.1.1 ENERGIA

	Urtea	MWh	MWh/per tsona	Helburua	Bilakaera 2024/historikoa	Kalkulu- metodoa
<b>Energiaren zuzeneko kontsumoa, guztira</b>	2021	224,80	3,88	-	<b>Positiboa:</b> % 19,5 gutxitu da pertsona bakoitzeko energia elektrikoaren kontsumoa aurreko hiru urteetako batezbestekoekin alderatuta (2021, 2022 eta 2023)	Energia elektrikoaren kontsumoa (MWh) + Gas naturalaren kontsumoa (MWh) + Erregaiaren kontsumoa (MWh)
	2022	260,08	3,51	-		
	2023	192,01	3,05	-		
	<i>Aurreko urteetako batezbeste koak</i>	225,63	3,47	-		
	<b>2024</b>	<b>156,55</b>	<b>2,78</b>	-		
<b>Energia elektrikoaren kontsumoa</b>	2021	124,38	2,14	-	<b>Positiboa:</b> % 5,6 gutxitu da pertsona bakoitzeko energia elektrikoaren kontsumoa aurreko hiru urteetako batezbestekoekin alderatuta (2021, 2022 eta 2023)	Energia elektrikoaren kontsumo-ratioa (MWh/pertsona) * pertsona-kopurua Iturria: Bizkaia Plaza eraikinak emandako datua
	2022	157,42	2,13	-		
	2023	121,94	1,94	-		
	<i>Aurreko urteetako batezbeste koak</i>	134,58	2,07	-		
	<b>2024</b>	<b>109,42</b>	<b>1,95</b>	-		
<b>Gas naturalaren kontsumoa</b>	2021	70,71	1,22	-	<b>Positiboa:</b> % 62 gutxitu da pertsona bakoitzeko gas naturalaren kontsumoa aurreko hiru urteetako batezbestekoekin alderatuta (2021, 2022 eta 2023)	Gas naturalaren kontsumo-ratioa (MWh/pertsona) * pertsona-kopurua Iturria: Bizkaia Plaza eraikinak emandako datua
	2022	52,16	0,70	-		
	2023	22,74 <sup>2</sup>	0,36	-		
	<i>Aurreko urteetako batezbeste koak</i>	48,54	0,75	-		
	<b>2024</b>	<b>15,88</b>	<b>0,28</b>	-		
<b>Ibilgailuen energia-kontsumoa</b>	2021	29,71	0,51	< 0,65	<b>Positiboa:</b> % 14,66 gutxitu da pertsona	Erakundeko ibilgailuen erregai-

<sup>2</sup> Datua zuzendu egin da aurreko ekitaldiarekiko, akatsa identifikatu baitzen.

